


norabide **ALDAKETA**

GURE ERABAKIEN INGURUKO ISTORIO BAT



JOSE LUIS FORTE - ENRIQUE FLORES

norabide ALDAKETA

gidoia JOSE LUIS FORTE
irudiak ENRIQUE FLORES

Euskerazko itzulpena: Belaxe Itzulpen Zerbitzua

Editatua: Observatorio de Multinacionales en América Latina (OMAL) – Paz con Dignidad

Argitalpen data: 2013ko abendua

Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL) proiektua 2003an sortu zuen Bakea eta Duintasunak, Espainiako enpresa transnazionalen jardunak Latinoamerikako gizartearen, ingurumenaren, kulturen eta ekonomian eragindako ondorioak ikertu, dokumentatu eta sistematizatzeke helburuarekin. Espainiako multinazionalak eskualdean izateak dakartzan ondorioei buruz informatzea eta sensibiltzatzea da OMALen xedea, eta horretarako, erakunde sozial, politiko eta sindikalekin lan egiten du, sarean, eta baita bestelako erakunde, unibertsitate, GGKE eta Latinoamerikako eta Espainiako estatuko ikasketa-zentroekin ere.

www.omal.info

observa.empresas@omal.info

Bakea eta Duintasuna irabazi asmorik gabeko erakundea da. 1995ean sortu zen eta egungo eredu neoliberalera aldatzeko lanean dihardu, desberdintasunen eta injustizien sortzaile diren arrazoiei aurre egin nahian. Giza eskubideen alde egitea, elkartasuna eta garapenerako lankidetzeta dira lan horren ardatza.

www.pazcondignidad.org

pazcondignidad@pazcondignidad.org

Asociación Paz con Dignidad

Gran Vía, 40 – 5º 2

28013 – Madrid

Tel. eta faxa: (+34) 91 523 38 24



Paz con Dignidad / Bakea eta Duintasuna

Zabalbide 19, B solairuartea

48006 – Bilbao

Tel. eta faxa: (+34) 94 655 2944

Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin gauzatu da.



MARTA DUT IZENA, ETA HAMASEI URTE DITUT. GURASOEKIN ARJ NAIZ BIDAIAITZEN. ANDEEN GAINETIK GOAZ HEGAN, ESPAINIATIK TXILERA. OPORRETAN GOAZELA ESAN NAHI NUKE, UDAKO BEROTIK IHESI DOAZEN TURISTAK GARELA. BAINA EZ, EZ GARA TURISTAK. ETA BAI, IHESI GOAZ.



AITA ANGELEK BERE AURKIKUNTZA MIRAGARRIA EGIN ZUENEAN HASI ZEN DENA. OSO INGENIARI KIMIKO GARRANTZITSUA DA, ETA JOTA DAGO PIXKA BAT.



AMA, JANE, INGELESA DA, ETA ASKOTAN KONTATU IZAN DIT AITAK BETIDANIK IZAN DUELA GAUZAK IKERTZEKO GRINA.



GRINA HORREN ERAGINEZ, ISTRIPIUREN BAT EDO BESTE ERE IZAN DU BERE IKERKETETAN, BAINA HORREK EZ DU INOIZ GELDIARAZI.



ENEI MENDIAK IZUGARRIAK IKUSTEN DIRA HEMENDIK! USTE DUT INOIZ IKUSI DUDAN PAISAIARIK EDERRENA DELA. BAINA, TIRA, AITAZ ARI NINTZAIZUEN HITZ EGITEN.



HARK BETI IZAN DU EZAUGARRI BITXI BAT, SUPERBOTERE BELDURGARRI BAT, AMAK ESAN OHI ZUEN MODUAN: BURUAN EDOZEIN MATERIA DESKONPOSATU, EZKUTUKO OSAGAI KIMIKO GUZTIAK ATERA ETA ELEMENTUAK BERRIRO OSATZEKO GAUZA DA.



INOIZ ERE EZ DUZU HALAKORIK IKUSI, EZTA?

DOHAIN HORRI ESKER, MUNDUKO TXERTORIK ERAGINKORRENA AURKITU ZUEN. GIZAKIAREN ZORIGAITZ ETA GAIXOTASUN GUZTIAK ERROTIK KENTZEKO GAI DEN TXERTO. HORREGATIK GOAZ ORAIN IHESI.

EZ, AITA, BEHIN ERE EZ.

ANDEEN EDERTASUNAZ ARI ZEN AITA, BAINA NIK, BETI BEZALA, EZIN NIEN HAREN ESKUEI ETA AURPEGIARI BEGIRIK KENDU, GUZTIZ HONDATUTA BAITZITUEN ESPERIMENTUEN ONDORJOZ.



DUELA HILABETE, ESKUTITZ BAT JASO ZUEN. NOBEL SARIRAKO PROPOSAMENA ZEN, MUNDUKO SARIRIK GARRANTZITSUENETAKO BATERAKO HAUTAGAITZA.



GOGOZ KONTRA ONARTU ZUEN, ETA, EGUN GUTXIRA, BISITA IZAN GENUEN.



MUNDUKO BANKUKO ORDEZKARIAK OMEN ZIREN, ETA SARIA IRABAZI ORDUKO AITA BILERA BATERA JOATEA NAHI ZUTEN, SUITZAKO HERRIXKA GALDU BATERA.



GIZON HAIK EZ ZUTEN ZALANTZARIK: GONBIDAPENA ONARTUZ GERO, IRABAZI EGINGO ZUEN.



AITA KAZETARI BATEKIN ELKARTU ZEN ETA BERE AURKIKUNTZAK INORI EZ ZIKIOLA LAGAKO ESAN ZION. GIZADIARI LAGUNDUKO ZION LORPEN BAT ZELA PENTSATZEN ZUEN, EZ NEGOZIOAK EGITEKO TRESNA BAT.



ESAN ZION, MUNDUKO BANKUA ETA SENDAGAIK FABRIKATZEKO HAINBAT KONPAINIA HANDI DAGOENEO HARREMANETAN JARRI ZITZAIZKIOLA, BERAIEKIN LAN EGIN ZEZAN.



EZ DAKIGU ZER GERTATU ZEN; ELKARRIZKETA EZ ZEN, ORDEA, INOIZ ARGITARATU. AITA KAZETARIAREKIN HARREMANETAN JARTZEN SAIATU ZEN, BAINA OPORRALDI LUZEAK HARTU ZITUELA ESAN ZIOTEN EGUNKARIAN.



ETA, HURRENGO EGUNEAN, TXILERAKO HEGAZKINA HARTU GENUEN.



BEGIRA, AMA! PAISAIA PAREGABEA DA.



ORDU PARE BAT BERANDUAGO, SANTIAGOKO AIREPORTUAN ARJ GARA LUR HARTZEN.



AMA ARI DA ADUANAKO KUDEAKETA GUZTIAK
GITEAZ ARDURATZEN. INGELESEZ HITZ
EGITEN DUENEZ, GURE ARRASTOAK
EZABATZEN LAGUNDUKO DIGU BEHARBADA.



ORAIN AUTOA ALOKATU BEHAR
DUGU. ZENBAT ETA LEHENAGO
JOAN HEGOALDERANTZ, HOBETO.



NI ARDURATUKO NAIZ,
LAZTANA. ITXARON KANPOAN:
HANTXE JASOKO ZAITUZTET.




NORA GOAZ
ORAIN, AITATXO?

PUNTA FINALERA GOAZ,
HEGOALDEAN, IA MUNDUAREN
AMAIERAN, DAGOEN HERRI
BATERA. LAGUNDUKO DIGUN
LAGUN BAT DUT HAN.



BAGOAZ AURRERA.



SANTIAGO UTZI ETA HEGOAL-
DEKO LEKURIK SAKON ETA
URRUNENERANTZ GOAZ.





IKUS DEZAGUN PAISAIA EDER.
HAU NOLA SUNTSITU DEN.
DOAN LEKURA DOALA, GIZAKIAK
SUNTSITU EGITEN DU NATURA.

LUR HAUETAN, INDIGENAK BIZI ZIREN. EKOSISTEMA ZAINTZEN ZUTEN, ETA BAZEKITEN LURRAREN HANDITASUNAREKIN BIZITZEN. BAINA KANPORATU EGIN ZITUZTEN, PRESA HAU ERAIKI AHAL IZATEKO.



TXILEKO BIOBÍO ETA AYSÉN ESKUALDE ZORAGARRIAK PROFANATU EGIN DITUZTE PRESA HANDIAK ERAIKITZEKO, ETA MAKROZENTRAL HIDROELEKTRIKO HORIEK OSO ONDORIO TXARRAK EKARRI DITUZTE LURRALDEAN.



BALIABIDE NATURALAK ARPILATU ETA BERTAKO KOMUNITATEAK JOANARAZI EGIN DITUZTE, ETEKIN HANDIAK LORTZEKO HELBURU ETSIGARRI HORI DELA ETA.



ENPRESA TRANSNAZIONALEK EZ DITUZTE ERRESPESTATZEN BEREN ERAIKUNTZAK EZARTZEN DITUZTEN HERRIALDEKO LEGEAK ETA INGURUNEA.



ETA INORK EZIN DITU GELDIARAZI? ZER DIRA TRANSNAZIONALAK?



KAR, KAR, KAR. BANAN-BANAN, NESKATXA. GELDIARAZTEN SAIATZERIK BADAGO, JAKINA. ERAGINDAKO KOMUNITATEEK AUZITEGIEIAN SALATU DUTE ENDESA, ZENTRAL HONEN JABEA.



BERE MAKROZENTRAL HIDROELEKTRIKOEKIN TXILEKO PATAGONIA SUNTSITZEAGATIK SALATU DUTE. BESTE HERRIALDE BATZUETAN ERE SALATU DUTE: ARGENTINAN ETA KOLONBIAN, ADIBIDEZ.



ESPAINIAKO BESTE ENPRESA BAT, REPSOL, KOLONBIAKO YASUNÍ PARKE NAZIONALEAN ERAGINDAKO INGURUMEN NARRIADURAGATIK EPAITU DUTE, BAITA ARGENTINAKO LURRALDE MAPUTXEAN ETA KOLONBIAKO GIZA ESKUBIDEETAN ERAGINDAKO KALTEENGATIK ERE.



ENPRESA TRANSNAZIONALAK BEREN JARDUERAK NAZIOARTERA HEDATZEN DITUZTEN KONPAINIA HANDIAK DIRA. EZ DITUZTE EZARTZEN DIREN HERRIALDEETAKO ESKUBIDEAK ETA LEGEAK ERRESPETATZEN, EZTA NAZIOARTEKO EDO JATORRIZKO BEREN HERRIALDEETAKO LEGEAK ERE.



DIRUAREKIN EDOZER EGIN DEZAKETELA USTE DUTE. IRABAZIAK ETA ETEKINAK BAKARRIK INTERESATZEN ZAIZKIE. EZ DITUZTE ENPLEGATZEN DITUZTEN PERTSONEN LAN-BALDINTZAK ERRESPETATZEN.



BOTERE EKONOMIKOA ETA POLITIKOA DUTE, ETA KOMUNIKABIDE HANDIEK HAIEN INTERESAK BAKARRIK DEFENDATZEN DITUZTE. HORIETAKO ENPRESA BATEK NIRE IKERKUNTZAK NAHI DITU. OSO BALIAGARRIAK DIRA BERAIENTZAT.



BAINA ZURE AITAK SEKULA SANTAN EZ DU BERAIENTZAT LAN EGINGO.







HEMEN GAUDE, NESKAK. IRITSI GARA.

NON BIZI DA ZURE LAGUNA?



BADA, EZ DAKIT,
BAINA HAU IZANGO
DA BERE DENDA.

ZURE LAGUN KIMIKARIAK,
ZURE USTEZ PLANETAKO
EMAKUMERIK
BIZKORRENETAKO
DENAK, JANARI DENDA
BAT AL DU?



HARK ERE IHES EGIN BEHAR IZAN
ZUEN. HALERE, HAREN JAZAR-
LEAK EZ ZIREN NIREAK BEZAIN
TEMATIAK IZAN: BERAK IRAGANEKO
EZBEHAR BATETIK EGIN ZUEN IHES.

ANGEL LAGUNA, PATUAK NIRE ATZETIK
ZAKARTZA... BETI BEZALA: ZURE
IKERKETAK INOIZ EZ DIRA NIREEN
MAILARA IRITSI, KAR, KAR, KAR.



KRISTINA, EZ ESAN
LELOKERIAK:
HORRETRAKO
NAHIKOA NAIZ NI,
KAR, KAR, KAR.



LAGUN MAITEA: HEMEN ONIK IZANGO ZARETE.



NIREZTAT OSO ARRAROA IZAN ZEN AITA NORBAIT BESARKATZEN IKUSTEA. EZ DA BESARKADAZALEA, EGIA ESAN. ASKO ESTIMATZEN ZUEN LAGUN BAT IZANGO ZEN.



KRISTINAK BERE ETXERA ERAMAN GINTUEN. HAN, ANA ETA ROBERTO SEME-ALABAK AURKEZTU ZIZKIGUN. ANAK INSTITUTUAN IKASTEN ZUEN, NIK BEZALA. ROBERTO, BERRIZ, LANEAN ARI ZEN.



POZTEN NAU DENA ONDO DOAKIZULA JAKITEAK. SEME-ALABA EDERRAK DITUZU.

JANE ETA MARTA ZORAGARRIAK DIRA. ZORTEA IZAN DUZU, MOTEL. LASTIMA ZURE IKERKETAK HORREN DEIGARRIAK GERTATU IZANA.



BEHIN BETIKO EGIN DUGU IHES, KRISTINA. GERATZEKO ETORRI GARA. EZ DUT EZKUTATZEKO BESTE LEKURIK EZAGUTZEN.





TIRA, SENTITZEN DUT ZUEK
UTZI BEHAR IZANA, BAINA
LANERA JOAN BEHAR DUT.

ROBERTOK PROSPEKZIOKO PETROLIO
HOBI BATEAN EGITEN DU LAN, ITSAS
ZABALEAN DAGOEN PLATAFORMA
BATEAN. BI ORDUKO IBILBIDEA EGIN
BEHAR DU HONDARTZARA IRISTEKO,
ETA HANDIK ITSASONTZI BATEAN
ERAMATEN DITUZTE HOBIARAINO.
EZ DUGU ZENBAIT EGUNETAN IKUSIKO.



BESTE EDOZEIN LAN
BEZALAKOA DA, AMA.

BADIRA EGUNETAN
ZUTIK EGOTEA ETA
GAUEKO LANALDIK
EGITEA ESKATZEN EZ
DUTEN LANAK, ZUEK
ESPLOTATZEN ARI DIRA.

BEHARBADA, NAHIAGO IZANGO
DUZU ZUREKIN DENDAN ARITZEA,
BAINA NIK NEURE ETORKIZUNA
LANDU BEHAR DUT.



NIRE DENDA XUMEA DA, BAINA
NIRE LANAREKIN EZ DITUT
MILIOI ASKO DITUZTEN ENPRESAK,
EZER ERRESPEATZEN EZ
DUTENAK, ABERASTEN.





ATSEDEN HARTU DUGU BIDAIA LUZEAREN
OSTEAN. GAUR GOIZEAN, KRISTINAREN
DENDA IKUSI ONDOREN, ETXE BILA
HASIKO GARA.



BIZITZA BERRIA HASTEN DA ORAIN GURETZAT.
HEMOEN, HEGOALDEKO LEKURIK SAKONENEAN,
EGUZKIA BERE ZENITERA INOIZ IRISTEN EZ
DEN ETA UDAN EGUNAK OSO LUZEAK DIREN
LEKU HONETAN.



AMA ANAREKIN JOAN DA HERRIAN ETA
INGURUETAN OSTERA BAT EGITERA.
NIK NAHIAGO DUT BERANDUAGO JOAN.
AITA KRISTINAREN DENDARA DOA.



BEREN GORABEHEREZ HITZ EGITEN
HASIKO DIRA, SEGURU ASKO, IRAGANAKO
ISTORIOEZ EZAGUTU ETA LAGUN
EGIN ZIRENEKO ISTORIOEZ.



NIRE ADINEKO BESTE EDOZEIN NESKA
IZUTUTA LEG-OKE, BEHARBADA, EGOERA
HONEN AURREAN; BAINA, LAGUN NOLA
EGIN ZIREN JAKIN NAHI DUT NIK ETA,
AGIAN, KRISTINA HONA NOLA IRITSI ZEN.



DENA DEN, GAUZA BERA ESAN DEZAKEZU
ZUK NITAZ, EZTA? HEMEN BIZIMODUA
NOLA ATERAKO DUDAN PENTSATU
BEHARKO DUT.

SEKULA EZ NUEN PENTSATUKO, JANARI
DENDA BAT IZATEN AMAITUKO ZENUENIK.



EZ PENTSA GARRANTZITSUA EZ DENIK. TOKIKO MERKATARITZAKO NIRE DENDAREKIN, BESTE AUKERA BAT SUSTATZEN DUT, NI BEZALAKO MERKATARI TXIKIAKI ETAN NEKAZARIAK LANIK GABE UZTEN DITUZTEN KONPAINIA HANDIEN ONDOAN.



KOMUNIKABIDEAK KORPORAZIO HANDIEK MENDERATZEN DITUZTE. ALBISTEEK HAIEN INTERESAK BABESTEVA EDO "AURPEGIA GARBITZEKO" ETA GIZARTE EKINTZAKO JARDUERAK EZAGUTARAZTEVA DUTE HELBURU. ETA, BENETAN, EZARTZEN DIREN HERRIALDEEI SORTUTAKO KALTEAK ESTALTZEKO MODU BAT BESTERIK EZ DIRA.



ENPRESA TRANSNAZIONALEK DUTE BOTEREA, ETA GOBERNUEKIN BATERA KUDEATZEN DUTE GAINERA, ENPRESEN ZERBITZURA BAITAUDE. ESPAINIAN, ADIBIDEZ, BBVA ETA SANTANDER GISAKO BANKUEK GOBERNUVA BERA DIRELA EMATEN DUTE.



DENETARIKO ENPRESAK DITUGU: EHUNGINTZAKOAK, SEGURITASUN PRIBATUKOAK, TELEKOMUNIKAZIOETAKOAK, URAREN ALORREKOAK, ENERGIAKOAK (REP SOL, GAS NATURAL ETA IBERDROLA, ADIBIDEZ)... ETA HORIEK ESPAINIAR JATORRIKOAK BAKARRIK AIPATZEARREN.



INDUSTRIA MILITARRA SUSTATZEN DUTEN, GIZA ESKUBIDEAK URRATZEN DITUZTEN ETA INGURUMEN ARLOKO LEGEAK ERRESPESTATZEN EZ DITUZTEN IKERKETAK BULTZATZEN DITUZTE. GERO ETA LAN BALDINTZA OKERRAGOETAN IZATEN DITUZTE BEREN LANGILEAK, ETA BESTE ENPRESA BATZUK AZPIKONTRATATZEN DITUZTE, KOSTUAK MURRIZTU ETA ARE IRABAZI HANDIAGOAK LORTZEKO.



GAUR EGUN BIZI DUGUN KRISIA EZ DA EKONOMIKOIVA SOILIK, BIZI GAREN SISTEMARI BERARI ERAGITEN BAITO, MUNDUKO HERRITAR GHIHENEN BIZI BALDINTZAK POBRETUZ. ETEKINAK ETIKAREN GAINETIK DAUDE, ETA PRODUKZIO ETA KONTSUMO NEURRIGABEEK NATURA SUNTSIARAZTEN DUTE, JASANGAITZAK DIRA.



HORREGATIK, ERRESISTENTZIA MODUAK
PENTSATU BEHAR DITUGU, BESTEEKIKO
ETA PLANETAREKIKO AUKERA SOLIDARIO
BAT ESKAINIKO DUTEN MODUAK. HORREGATIK,
ZU BEZALA DENA UTZI ETA HONA ETORRI
NINTZENEAN, TOKIKO MERKATARITZAKO
DENDA TXIKI ETA EKOLOGIKO HAU IREKITZEA
ERABAKI NUEN.



PRODUKTUAK EKOIZLEARENGANDIK
KONTSUMITZAILEARENGANA ERAMATEN
DITUGU, ZUZENEAN.MODU
DEMOKRATIKOAN JARDUTEN DUTEN
KOOPERATIBEKIN EGITEN DUGU LAN,
GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO
BERDINTASUNA BERMATZEN
DUTENEKIN ETA HAURRAK
ESPLATATZEN EZ DITUZTENEKIN.



GIZA ESKUBIDEAK ETA PRODUKTUEN KALITATEA
ERRESPETATZEN DIRA, HORIEK MODU
JASANGARRIAN ETA GERTUKOAN LANDUTA
EGON DAITEZEN, NATURARI KALTERIK
ERAGIN GABE.



AUKERA POLITA DA. DENOK GAUZA BERA
EGINGO BAGENU, AKASO HOBETO JOANGO
LITZAIGUKE DENA. BAINA EZ GAITEZEN
HORREN SERJO JAR. EZ DUZU USTE, TXIKI?
KAR, KAR, KAR.



TIRA...


ATSEGIN DUT DIOZUNA. BAINA, AITA BEZALA,
GU BEZALA, IHESAK EKARRI ZINTUELA ESAN
DUZU. ZER GERTATU ZITZAIZUN?









UKITU HANDIAK BEHAR DITU,
BAINA EDERRA GERA DAITEKE.



JANE, EZ ZINEN DESEROSO
SENTITUKO ROBERTO ETA
AMA EZTABAIAN HASI
DIRENEAN, EZTA?



EZ HORIXE, MAITEA.
PERTSONEK EZTABAIATU
EGITEN DUTE; BEREZKOA DA.



BADAKIT, BAINA ROBERTO EZ DA ZORJONTSUA.
ORDU ASKO EGITEN DITU LANEAN, GAU ASKO
LORIK EGIN GABE, ETA OSO GUTXI IRABAZTEN DU,
NAHIZ ETA NAGUSIEK GERO ETA GEHIAGO IRABAZI.



EZ KEZKATU. DENON ARTEAN LAGUNDUKO
DIOGU. ELKARREKIN BAGAUDE, EDOZEIN
ARAZORI EGINGO DIOGU AURRE.



ESKERRIK ASKO, JANE!
ASKO POZTEN NAIZ
ZUEK HONA ETORRI IZANAZ.

TIRA... NIRE KASUA EZ DA ZURE AITARENA
BEZAIN GARRANTZITSUA. EZ NAIZ HORREN
ZIENTZIALARI ONA. NIRE ARAZOA
PERTSONALA IZAN ZEN.



NIRE BIKOTEKIDEA,
ANAREN ETA
ROBERTOREN AITA,
HIL EGIN ZEN
GAIXOTASUN
LUZEAREN OSTEAN.



DENA ALDE BATERA UTZI ETA HEMEN
BESTE BIZITZA BAT EKITEA ERABAKI NUEN.
ETA GURE GIZARTEA HOBETZEKO ZERBAIT
EGIN NAHI NUELAKO IREKI NUEN
HEMEN DENDA HAU.



KRISTINA!



ANTONIO, ZER GERTATZEN DA?
ZERGATIK HORRENBESTEKO PRESA?



PETROLIO HOBIA! SUTAN DAGO!



BADAKIZU ZERBAIT
LANGILEEI BURUZ?
BA AL DAGO ZAURITURIK?




BAI, ZAURITUAK BADAUDE, BAINA EZ
DAKIGU ZEIN. SEMEAK DEITU DIT,
BAINA KOMUNIKAZIOA ETEN EGIN DA.
ANAIA ERE HAN DUT.



LANGILEEK GAU GUZTIA ZERAMATEN LORIK EGIN
GABE, LANEAN. LEHER EGINDA ZEUDEN ETA
ISTRIPUAK USTEKABEAN HARRAPATU DITU.



KRISTINA, ENPRESAK GERTATUTAKOAREN
ERRU GUZTIA LANGILEEI BOTA NAHI DIELA
ESAN DIT SEMEAK. ORAINDIK EZ DITUZTE
ZAURITUAK PETROLIO HOBITIK ATERA ETA
NAGUSIEK JAKINARAZPEN HORI EGIN DUTE
DAGOENEKO. JASANGAITZA DA!



EZ KEZKATU, ANTONIO. DENOK DAKIGU
ZER BALDINTZATAN ARI ZIREN LANEAN ETA
ISTRIPUEI AURREA HARTZEKO NEURRIAK
HUTSAK ZIRELA. HAIENTZAT DENAK BALIO
DU, ZENTIMO BATZUK AURREZTEKO
ETA ABERASTEKO!



HONDARTZARA JOAN BEHAR
DUT, HOBIRA, SEMEAREN ETA
GAINERAKOEN ONDORA.

ZUREKIN
GOAZI!

BAI, NOSKII!





AITA ETA BIKO KRISTINAREN KAMIONETAN GOAZ. ANTONIO BERANDUAGO ETORRIKO DA. SENTARTEKOEI GERTATUTAKOAK JAKINARAZI ETA HERRIARI ISTRIPUAREN BERRI EMATEKO GERATU DA.



EZBEHARRAREN LARRITASUNAZ ETA BELDURREZ BETERIK GAUDE, BAINA BAITA AHAL DEN NEURRIAN LAGUNTZEKO GOGOZ ETA ERABAKITASUNEZ ERE.



AZKENEAN, IRITSI GARA HONDARTZARA! KEA ETA SUA IKUSTEN DIRA: PLATAFORMA SUTAN DAGO.



SUTEAK ERAGINDAKO HODEI BELTZARI SO GELDITU GARA. PLATAFORMA BELDURGARRIA DA, NATURA GUZTIZ SUNTSITZEN DUEN ERAIKUNTZA BAT. ITSASOAREN ERDIAN TENTE DAGOEN MUNSTROA EMATEN DU.



PRESAREN KASUAN BEZALA, EZ DU INGURUMENA ERRESPEATZEN. KOSTA AHALA KOSTA DIRUA IRABAZTEA DU XEDE BAKAR. ETA GURE PLANETA ATERATZEN DA GALTZAILE.



BEGIRA, TXALUPA BAT DATOR!



HAUXE DA LARRIEN DAGOEN ZAURITUA.



ANTONIOREN ANAIA DA!









LASAI, ANAIA, ONDO JARRIKO ZARA.



ELKAR HARTURIK JARDUN BEHAR DUGU. LANGILEEI LEPORATU NAHI DIETE ISTRIPUAREN ERRUA, LAN ARDURAGABEKERIA GATIK.



SUTEA PLATAFORMAKO SEGURITASUN GABEZIAGATIK SORTU DA.



DENOK EZAGUTZEN DITUZUE PETROLIO HOBIKO LAN BALDINTZA JASANEZINAK: HAMALAU ORDU BAINO GEHIAGOKO TXANDAK, GAU ETA EGUN JARDUNEZ, BEHARREZKO BABES NEURRIRIK GABE...

SINADURAK BILDU ETA PETROLIO ENPRESA
SALATZEKO EKINTZA BATERATU BAT
ABIARAZTEA ERABAKI DUGU. GUZTIOK
LAGUNTZEA ESPERO DUGU!



ELKAR HARTURIK,
AURRE EGINGO
DIOGU ENPRESARI!



ARRAZOI ZENUEN, AMA. LAN HAU
IKARAGARRIA DA. ITSASOA, HONDARTZA...
DENA DAGO KUTSATUTA, ETA HEMEN
LAN EGINDA, ENPRESARI HANDIEN
ESKLABOAK BAINO EZ GARA.



TXALUPAN BUELTAN GENTOZELA,
PENTSATZEN ARITU NAIZ. UTZI EGIN
NAHI DIOT PLATAFORMAN LAN EGITEARI.
ETA, UZTEN BADIDAZU, ZUREKIN
JARDUN NAHIKO NUKE DENDAN.



JAKINA, ROBERTO. ATSEGIN HANDIA IZANGO
DA. GIZARTE HAU HOBETZEKO GURE HARRI
KOSKORRA IZANGO DA.



TIRA, NAHIKOA DA;
NEGAR EGINARAZIKO
DIDAZUE AZKENEAN.
KAR, KAR, KAR.

ITZUL GAITEZEN ETXERA!





DENA ONGI JOAN ZEN, AZKENEAN. HERRIAK, ELKARTURIK, ENPRESAREN AURKAKO SALAKETA AURKEZTU ZUEN. ETA ANTONIOIAREN ANAIA BEHAR BEZALA ARI DA SENDATZEN BERE ZAURJETATIK. GUK, BERRIZ, ANAK AMARI ERAKUTSI ZION ETXEAN BIZITZEA ERABAKI DUGU.



ETXEA KONPONTZEN ARI GARA PIXKANAKA, ETA GERO ETA POLITAGO-A DAGO. NIK AHAL DUDAN GUZTIAN LAGUNTZEN DUT. LASTER, HIRJAN DAGOEN INSTITUTURA JOATEN HASI BEHARKO DUT, BAINA ORAINDIK ASKATASUN EGUN HAUEK APROBETXA DITZAKET.

DIRUDIENEZ, AMAITU DIRA IHES EGITEKO EGUNAK, EZ AL DUZUE PENTSATZEN?




NIK EZ NUKE IHES EGIN DUGULA ESANGO, IHES EGITEN UTZI DIGUTELA BAIZIKI EZ DA GAUZA BERA!







ZU AURKITU
IZANA EZ DA
ZORTE KONTUA.



BADAKIZU GUREKIN BEHAR
ZAITUGULA. DAG-OENEKO OPOR
EGUN GEHIEGI IZAN DITUZU.




ETXERA ITZULTZEKO ORDUA DA.



HEMENDIK EZ DA GURA EZ DUEN INOR JOANGO.



PERTSONA HAU EK HEMEN GERATZEKO
ETORRI DIRA; ULERTU EGIN BEHAR DUZUE.



JAKINA, GONBIDAPEN ADEITSU BAT
BAINO EZ ZEN. GUK GUREA BETE DUGU:
NAHI DUENEAN ITZUL DAITEKEELA
GOGORARAZTEA.



IZUGARRI POZTU NINDUEN ZORIGAITOKO GIZON HAI EK JOATEN IKUSTEAK. BAITA KRISTINA ETA HERRIKO GIZON-EMAKUME GUZTIAK, ELKARTURIK, GURI LAGUNTZERA NOLA ETORRI ZIREN IKUSTEAK ERE.



POZTASUN HANDIKO MOMENTUA IZAN ZEN.



GERO, DENAK JOAN ONDOREN, ETXEAN SARTU GINEN.



MARTA DUT IZENA, ETA HAMASEI URTE DITUT. JANE ETA ANGEL GURASOEKIN BIZI NAIZ. BIZITZA BERRIARI EKIN DIOGU HEMEN ETA OSO ZORIONTSU IZANGO GARA, SEGURU.

norabide ALDAKETA

GURE ERABAKIEN
INGURUKO
ISTORIO BAT

gidoia JOSE LUIS FORTE
irudiak ENRIQUE FLORES



Laguntzaileak:

